

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

NORTASUN ARLOA

Laudioko aire zabaleko XXVIII. Pintura lehiaketarako deialdia

LEHENENGOA.- Aplikatu beharreko araudia.

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Laudioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza (ALHAO, 28 zk., 2021eko martxoaren 10ekoa), oinarri orokor gisa.
- Deialdi hau, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudi osagarria ere.

BIGARRENA.- Dirulaguntzaren xedea, zenbatekoa, aurrekontu-erabilgarritasuna.

Deialdi honen xedea eta helburua "Sanrokeak 2026" aldian aire zabaleko pintura-lehiaketa egitea da, norgehiagoka-erregimenean, publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraiki.

Lehiaketa honetan 1.900,00 euroko sariak emango dira, 0403 3381 48001 "Jaietako lehiaketak" aurrekontu-aplikazioaren kargura.

Irabazleek sariak atxikitzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko dute uneoro.

HIRUGARRENA.- Obren betekizunak, epaimahaia eta parte hartzeko baldintzak.

1. Lehiaketa 2026ko abuztuaren 15 egunean egingo da.
2. Edozein pertsonak parte hartu ahal du, zein-nahi den bere naziotasuna edo egoitza-lekua. Parte-hartzaile bakoitzari ogitarteko bat eta freskagarri bat emango zaizkio, gutxi gorabehera 250,00 euroko kostuarekin.
3. Lanak aire zabalean egin beharko dira, Laudioko udalerriaren barruan, eta erakundeak edizio bakoitzean zehazten duen eremuari buruzkoak izango dira. 2026ko edizioan, Laudiotik igarotzen den ibaiaren ertzetan egindako obrak baino ez dira onartuko. Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.
4. Teknika librea izango da; lana burutzeko beharrezko izango dituen tresnak, astoa barne, lehiatzaile bakoitzak ekarri behar ditu.
5. Lana egiteko euskarria zurruna izan behar da eta, edozein aldetatik hartuta, ez du 100 cm baino gehiago izan behar. Aurkeztu ahal da lanerako prest, baina ez da onartua izango, inola ezta ere, bere euskarriak zirriborroak, marrazkiak edo beste mota batzuetako seinaleak baditu.
6. Laudioko Udalan (Herriko plaza) zigilatuko da eta zenbakia emango zaio euskarriari lehiaketa-eguneko 8:30ak eta 10:30ak bitartean. Lehiatu nahi duenak ordu eta une horretan formalizatu behar du bere izen-ematea.
7. Lehiatzaileek erakundeari adierazi beharko diote, izena emateko unean hark emandako jarraibideak betez, zein leku zehatza aukeratu duten beren pintura egiteko, hala nahi duten bizilagunei nola lehiaketan parte har dezaketen epaimahaiari informazioa eman ahal izateko.

8. Lanak sinadura barik entregatu behar direlako izen-emate lekuan 2026ko abuztuaren 15 eguneko 15:00ak eta 16:00ak bitartean. Ordu horietatik kanpo aurkeztuko den lanik ez da onartuko. Lehiatzaileek euren lanetan jasan lezaketen kalte, galera edo lapurretengatik ezin izango diote kalte-ordain ekonomikorik eskatu Audio Udalarari, antolatutako ekitaldi osoan zehar Erakunde honen edo bere laguntzaileen zaintzapean egon arren ere.

9. Bata bestearekin pilatu edo metatu ezin diren sari hauek emango dira:

1. ^a	1.000,00 €
2. ^a	600,00 €
3. ^a	300,00 €

Sari-irabazleek men egingo diote indarrean dauden sarien gaineko euspenei buruzko araudian ezarritakoari eta sariak jendaurreko eta publiko egin ondoren euren lanak izenpetu/sinatu egin behar dituzte. Lan irabazle guztiak Audio Udalaren jabetzan geratuko dira. Udalak eskubidea du lan horiek erreproduzitzeko, beti ere egileak aipatuz, egileek ezin izango diotelarik inolako konpentsazio ekonomikorik eskatu.

10. Audio Udalak, Alkatetza-Lehendakartzaren Dekretu bidez izendatuko du Epaimahai Teknikoa osatuta egongo dena lehiaketaren objektua den pertsonekin. Lehendakaria, alkatea bera izango da edo ordeztu duen pertsona, berdinketa kasuan kalitatezko bozketa izango duen pertsona. Kultura Tekniko batek edo Lehiaketaz arduratzen den pertsonak idazkari lanak egingo ditu, ahotsa izango du baina bozkatzeko eskubiderik ez.

Udalaz kanpoko epaimahaiko kide bakoitzak 50,00 euroko oparia jasoko du bere laguntzagatik.

11. Epaitza, alde aurretiko deliberazioak hartuta, epearen barruan aurkeztutako lan guztiak aztertuta, kalitate, teknika, berritasuna eta indarrean dagoen legezkotasunaren zaintza eta jagoletzako irizpideak aplikatuta, saritutako lanak zehaztuko ditu edota lanek nahikoa kalitate ez badute egoki irizitako sariak hutsik geratzea erabaki dezake. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da eta sarien banaketako jendaurreko ekitaldi publiko batean lehiaketa eguneko 18:30etan jakinaraziko da ofizialki.

12. Lehiatzaileek saririk gabe suertatu diren lanak berreskura ditzakete abuztuaren 15etik irailaren 15era arte. Entrega hitzartu eta zehazteko alde aurretik 944 034 900 telefonora deitu beharko dute. Epe horren barruan berreskuratzen ez diren lanak Audio Udalaren jabetzakoak izatera pasako dira.

13. Lehiaketa honetan parte hartzeak berak esan nahi du bertan zehazten diren baldintza guztiak onartu direla eta, espreski, horiei men egiten zaiela. Deialdi honen ondorioz sortu edo planteatu litekeen edozein zalantzaren aurrean ebazpena Audio Udaleko Nortasun Arloaren eskumen osokoa da.

14. Lehiaketa honen oinarriak argitara emango dira jendaurrean Web orriaren bidez eta Audio Udaleko sare sozialen bidez, beste komunikabideez gain.

LAUGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpena eta jakinarazpena egiteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eta paperean edo bitarteko elektronikoen bidez egingo da, interesdunak bitarteko hori aukeratu badu Administrazioarekin harremanetan jartzeko. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritik.

Onuraduna izendatzen duen Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin ahal izango da.

BOSGARRENA.- Publizitatea.

Deialdi hau udalaren webgunean, ZUINen eta Laudioko Udalaren ohiko hedabideetan argi-taratuko da.

Laudio, 2026ko uztailaren 3a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ